

Antton Garikanorekin solasean

GOTZON EGIA

Euskal itzultzaileen artean soslai berezia du Antton Garikanok. Gaztea da, lan asko dauka egina, hizkuntza askotatik egiten du, ez gazteleratik ordea. Espezializazioari ihes egin nahi izan dio, literaturaren esparrutik gehiegi urrundu gabe bada ere. Formazioa lanbideak eman dio, itzultzen ikasi du itzultzaile izaten, teoriaren ur handietan itotzeko arriskuari itzuri. Senari lotu nahi izan zaio, bere itzultzaile senari. Itzulpengintzaz, literaturaz, hizkuntzez, itzulpen ikasketaz, munduaren egoeraz, denetatik zerbait mintzatu gara berarekin. Hona hemen laburpena.

Senez: Aurkezpen gisara, esaiguzu nor zaren. Non sortu zitzaizun hizkuntzen aldeko zaletasuna?

Antton Garikano: Tolosarra naiz sortzez, 1967an jaioa. Ikasketaz hizkuntzalaria naiz; euskal filologia ikasten hasi nintzen Donostian, bi urte egin nituen bertan, baina halako batean gauza bitxia gertatu zitzaidan. Guk etxean txiki-txikitatik liburu giroa eza gutu genuen, arreba zaharragoa ere badut itzultzailea, Maria Garikano izenaz izenpeztzen duena. Fakultatean hasi nintzenean, ikasketa programan sartzen ziren gaien azalpen moduko bat eman ziguten liburuxka batean bildurik; orduan ohartu nintzen liburu gehientsuenak irakurriak nituela. Alegia, euskarazko klasikoak ziren gehienbat, arreba horren bultzadaz irakurriak baintuen.

«Zer egin behar ote dut hemen nik?» galdeztzen nion neure buruari. Bi urte iraun nituen hala ere, baina azkenekoz ingeles filologiaren hautua egitea erabaki nuen. Bilbora aldatu nintzen, kurtso zubi horietako bat egin ostean, eta hantxe abiatu nintzen nire ikasketetan bide berri batetik. Huraxe izan zen, egiazki esateko, nire lehendabiziko benetako lotura ingelesarekin. Ordurako egiten nuen ingelesez, txirriki-txarraka, udan maiz joana bainintzen Ingalaterrara, baina Bilbon ikasten hasi nintzenean sendotu nuen ingelesarekiko harremana.

Baita ere, urte haietan ekin nion alemanera ikasteari; ikasgaia genuen unibertsitatean, baina ni filologiaren euskal adarretik nentorrenez, halako baliokidetasun bat aitortu zidaten, beraz ez nuen ezinbestean azterke-

tarik pasatu behar. Hala ere, nire gisara hasi eta zaletu egin nintzen berehala. Jakina, nik ez nuen inor Alemanian ezagutzen, eta bide bitxi batetik jo nuen: Tolosa inguruetan, Anoetan zehazki, bada paper lantegi bat, gutunazalak eta gisakoak egiten dituen, Winkler Dunnebier izenekoa. Lantegia jatorriz alemanera zela jakinda, joan nintzen hara eta nagusiari esan nion gustura egingo nuela lana hutsaren truke Alemaniako lantegi zentrallean. Ongi hartu ninduten, eta halaxe egin nituen uda batzuk han lanean eta alemanera ikasten. Hasieran oso zaila gertatu zitzaidan, hemen ikasitako alemanera akademikoko apurraz iritsi eta ohartu nintzenean dialekto mordo bat dagoela; gainetik, lantegian txekiarrek, poloniarrek, Asia ekialdekoak, denetarik zen lantegi hartan, denak alemaneraz, nor bere doinuaz... Horrenbestearino zen hango hizkuntza saltsa-maltsa, ezen azkenerako austriarra nintzela sinetsia baitzegoen jendea; inor gutxik espero zuen, noski, Euskal Herritik inor hara lanera joana izatea, eta austriartzat hartu ninduten. Jakina, gutxi hitz egin behar izaten nuen! Oroitzen naiz Literatura Unibertsaleko bilduman lehenengoz aurkeztu nintzenean ez nuela inolako agiririk alemanera banekiela ziurtatzeko, eta lantegiak emandako paper bat aurkeztu nuen, besterik ezean.

Senez: Esan daiteke, beraz, oso gazterik izan zenuela ez bakarrik hizkuntzari buruzko zale-tasuna, baizik hizkuntzak ikasteko jakinmina.

A.G.: Hizkuntzekiko loturak hurbiltasun fisikoaren alderdia ere izan zuen niretzat, nolabait esateko. Bilbon bizi izaten jarri nintzenean, Deustun hartu nuen etxea, trenbide ondoan, eta aldamenean Hizkuntza Eskola Ofiziala zegoen. Nik txikitatik banuen

liburuekiko ase ezinezko grina: filmak bezala, atseginagoak ditut jatorrizko bertsioan. Ez nintzen erraz laketzen liburua bere jatorrizko hizkuntzan irakurri gabe. Hortik sortu zitzaidan errusiera ikasteko gogo, beharra ia. Alabaina, garai hartan Hizkuntza Eskolan izen emateko garaia zoramena izaten zen: ikasgela bakoitzean ikasle kopuru mugatua zen, beraz jendeak gaua atarian pasa izaten zuen bere lekua gordetzeko. Hura ikusita, nik erabaki nuen banituela beste zeregin lehenagokoak, han ilaran orduak galtzen egon gabe, eta errusierako eskolara joaten hasi nintzen, izenik eman gabe. Ez nintzen ofizialki inon ageri, baina kontrola ere ez zen zorrotzegia; ni, badaezpada ere, hasieran behintzat atze samarrean jartzen nintzen, erdi ezkutuan, eta atetik hurre... Horrela bi urtetan pasa nituen Hizkuntza Eskolako errusierako bost mailak, azterketak modu librean eginez. Inoiz ez nuen inoren aurpegi txarrik edo errezelorik susmatu, eta azkenean agiri ofizialak lortu nituen, noski. Gerora banakako eskolak ere hartu izan ditut irakasleekin, nire errusiera hobetu eta sendotzeko.

Senez: Hala ere zergatik itzultzaile? Nola otu zitzaizun itzulpenak egiten hastera? Hizkuntzak jakitea nahitaezko baldintza da itzultzaile izateko, baina hori ez da aski...

A.G.: E.T.A. Hoffmann-ekin hasi nintzen, artean oraindik unibertsitatean ikasten ari nintzela, 1990. urte inguruan. Zergatik Hoffmann? Horixe bera galdetu zidan alemanerazko irakasleak, itzulpena egiten ari nintzelarik zalantza batzuen inguruan galdetza joan nintzaionean. Irudimenak izugarri erakarri izan nau haur nintzenek geroztik, munduaz besteko irudimenezko istorioak irakurri zale izan naiz beti. Horixe eran-

tzun nion irakasle hari: gehienetan gauza arruntak —halaberharrez— irakurri behar izaten ditugunez, nahiago nuela literaturan behintzat fantasiaren mundua esploratu. Baziren beste arrazoi utilitarioagoak ere nik Hoffmann bat hautatzeko, izan ere nire ikaskideak ni baino askoz aurrerago zeuden alemaneran, eta Hoffmann-en itzulpena neure buruari jarritako ariketa edo aitzakia izan zen baita ere. Gogorra gertatu zitzaidan, hala ere, literaturazko itzulpena lehenengoz egin bainuen. Aurretik, zertxobait aritua nintzen filmetako gidoiak itzultzen eta abar, baina literaturazko pieza batekin orduan ausartu nintzen lehenengoz.

Senez: Itzultzailea ez da, baina, goizetik arratsera sortzen. Praktikak zailtzen du itzultzailea, baina oinarri teoriko batzuk, ikasbideren bat ere beharrezkoa du, nahiz ikasketa formala ez izan.

A.G.: Nik behinik behin argi aitortu beharko dut autodidakto izan naizela itzulpengintzan. Ni ez naiz ikastolan ikasia, dena erdaraz ikasia naiz umetatik; gurasoak euskaltzaleak ziren, etxean euskal giroan bizi izan gara beti eta euskararen aldeko joera handia genuen denok, baina agian erlijio kontuengatik, apaizetan ikasi nuen, dena erdaraz. Nik egin nezakeen bide bakarrazen, euskararik galdu edo atzendu nahi ez banuen behintzat, irakasleak gazteleraz esaten zuena nik euskaraz hartzea. Hasieran barregarri egingo nuen noski, baina egina-ren poderioz ikasi ere egiten da hori, erdaraz egin ahala euskaraz hartzea oharrak. Unibertsitatean hasi nintzenean beste hainbeste egiten nuen; ingelesak ez zidan, horretan, enbarazurik egiten, baina hasieran filologiako adar guztiok batera gai asko gaz-

teleraz genituen, eta hor horrela saiatu nintzen.

Aurrez, dena dela, erdi jolasean edo, zertxobait lan egina nintzen irratian eta telebistan, gidoiak egiten edo esatari moduan...

Zalantzez betea eta erabaki ezinik dabilen horietakoa izateagatik naiz, behar bada, itzultzaile: euskaraz gain, hizkuntza batera edo bestera erabakia ezin harturik ibili naiz. Nire itzulpen lanetan ere ikusten da, ziur asko, zalantza hori, gaur genero honetakoa, bihar garai hartakoa, eta abar.

Senez: Orain arte itzuli izan dituzun obretan argi samar ageri da hori: gaiak, hizkuntzak joerak... Gainera, kronologiari bagagozkio ere ikusten da aldakuntza etengabea duzula. Gauza anitzetan aritu izan zara, espezializaziotik urrun, eta hori harrigarri samarra da euskal itzulpengintzan, ez da hala?

A.G.: Bai, Hoffmann-en atzetik errusieratik egin nuen Dostoievski-ren *Jokalaria*, eta hori ingelesera jo nuen, Virginia Woolf-en *Farorantz*, alegia, eta hortik aurrerakoak. Egia esan behar badut, dena dela, itzuli ditudan obra gehienak EIZI Eren *Literatura Unibertsaleko* bilduman daude, eta hor jakina da urtero zerrenda batetik hautatu behar izaten direla itzulgaiak. Beraz, ez da beti nire hautapen pertsonala izan, Kafka-ren *Prozesua* izan ezik, hori neronek egin eta argitaletxe bati eskaini bainion argitaratzeko. Ez noa orain aipatzera bilduma horrek dituen arazoak moldaera, banaketa eta sustapen aldetik, baina iruditzen zait baduela elkartek zer hobeturik horretan.

Hoffmann-en ipuin fantastikoak oso gustukoak ditut, irudimenaz gain sutondoan kontatzeko gisako ipuinak baitira. Hoffmann-ek eta beste idazle batzuek *Serapioren*

anaiak izeneko taldea osatzen zuten, eta esan izan da drogaren eraginpean idatzi ohi zituztela gauza asko. Ez dakit drogarik erabiltzen zuten, baina ipuinetan berriz maiz aipatzen dute pontxea, eta agian hori zen kontua: sutondoan jarri, pontxea edanez, eta txandaka bakoitzak kontakizuna botako zuen, nork handiagoa esango.

Gero Virginia Woolf eta Dostoievski etorri ziren. Biak batera egin nituen, egun batean baten mundu intimista, eta hurrengoan bestearen istorio lazarriak. Argia eta iluna, eguna eta gaua, horrela da bizitzaren muina, kontrastea alegia.

Egia esan behar baldin badut, Woolf-en itzulpena eta Katherine Mansfield-ena oso loturik ikusten ditut. Estilo aldetik badute parekotasun bat, gauza jakina da Virginia Woolf-ek miretsi egiten zuela Mansfield-en lana, elkarren lagun izan ziren, nahiz oso izaera desberdinekoak izan. Begien aurrez aurre bizitza dute, bizitza erreala, sentimenduak, baina beti sentimenduz harantzago doaz. Bizitza ispilu batean ikusten dute, baina galdetuz: «Nola ikusiko ote dira gauzak ispiluaz bestalde?».

Senez: Adituek diote Virginia Woolf-ek sintaxia eraikitzeke, esaldia tolesteko bide berri bat asmatu zuela ingelesez, «emakumearen esamoldea» sortzen ahalegindu zela alegia. Stream of consciousness (kontzientzia jarroa) delakoa erabili zuen lehenengotarikoa izan zen. Horrek zailtasun apartekorik jarri al dizu zure itzulpengintzan?

A.G.: Kritikariei irakurri izan diet Woolf-en idazkera hori afektatu samarra ote zen, nahita bilatutakoa, eta aldiz Mansfield-i barnetik zetorkion jarro hori bene-benetan sortutakoa zela. Modu batera zein bestera, ariketan izan edo natura izan, ez diet oztopo be-

rezirik aurkitu. Egia da esaldi amaigabeak dituela Woolf-ek, baina ongi itzultzekotan idazlearen beraren giro barrenean sartu beharra dago. Bestalde, nire printzipioetako bat da jatorrizko testuaren morroi ez izatea, ahal dudan neurrian bederik: «hemen egitura hau dago, eta saia nadin euskaraz ere egitura berdinarekin erantzuten», ez noa ni halakoen bila. Aitzitik, denboraren poderioz, zenbat eta gehiago euskaratu, irudipena dut gero eta gauza soilagoak sortzen zaizkidala. Hasieran, testuarekiko «leialagoa» edo lotuagoa izaten nintzen ziur aski, ariketa linguistikoaren antzekoa zen askotan itzulpengintza. Aritzearen ondorioz, berezkoago edo soilago itzultzen ditut testuak, hori argi ikusten dut, ez dakit asmatzen dudana, baina... Itzulpengintzan hasi nintzen geroztik gaurdaino, gaur ere bai, erreferentzia nagusitzat etxekoak ditut; edozein zalantza dut, eta etxekoengana jotzen dut: «nola esango zenuke halakoa?», eta askotan gehiago baliatzen dut, zentzuzko irtenbiderik emanez gero, haiek esandakoa hiztegietan edo gramatiketan aurkitzen dudana baino. Txikitan ere berdin egiten nuen, aiton-amonengana joaten nintzen askotan, libretatxo bat hartuta, haiek gauzak nola esaten zituzten notak hartzera. Aitortu beharra daukat niretzat itzulpengintzak oinarri ezinbesteko bat daukala: hizkuntza *maite* izan behar duzu, bai nora itzultzen duzun, bai eta nondik ari zaren.

Itzulpen bat amaitzen dudanean, eta zuzentzen hasten naizenean, azken begiratu ematen, beti egiten diot galdera berbera neurri buruari: «hau euskaldun batek hala idatziko ote zuen?». Hor jarri nahi izaten dut neurria, *sinesgarria* izatea alegia; ez dut uste neurri txarra denik hori. Hor sartzen ditut, baita ere, euskalkiak. Nik nire euskara era-

biltzen dut oinarrian, baina noski beti erne ibiltzen naiz beste euskalkietan zer erabiltzen den, hizkera aberasteko.

Bestalde, Woolf-en estilo trinkoaren kontu horretara itzuliaz, iruditzen zait iturri, hizkuntza eta joera oso desberdineko autoreen lanak euskaratu izanak lagundu egin didala zalantzarik gabe. Saiatu izan naiz, itzulpengintzan bizitzaren beste alderdi guztietan bezala, bide bakarrera ez jotzen, espezializazioa saihesten. Atzera begiratuz gero, egia esan, erosoago izango zen gai edo genero jakin bat hartu, esate baterako Hoffmann eta erromantiko alemanak, eta horretantxe espezializatzea; ziur aski hobeki egingo nukeen haien itzulpena, baina bide hori ez zait hainbeste interesatzen.

Prosazko lanak argitaratu izan ditut orain arte, baina poesia itzultzea ere asko maite dut. Poesiak aukera handia ematen du, nire ustez, lehen aipatzen nuen soiltasun hori, garbitasun hori lantzeko. Badut zerbait egin, argitaratu gabe baina. Batetik, aspaldian Munich-en erbestean bizi den irandar adiskide baten liburua, berak Said ezizen arruntarekin sinatu nahi izaten ditu bere lanak, arabieraz «zoriona» esan nahi baitu. Haren poema batzuk euskaratuta atera nituen *Garziarena* literatur aldizkari izandakoan, han Alemanian sari bat eman ziotenean.

Beste liburu pare bat itzuliak ditut, Georg Trakl (1887-1914) austriar idazlearenak. Gure artean «ezaguna» da, jakin gabe agian: Mikel Laboa kanta batzuetan alemanez hasten denean tarteka-marteka, hor esaten dituen hitzak Trakl-enak dira. Oso gazterik hil zen, bizitza gogorra izan ostean: haurretan bere arrebarekin harreman intzestuosoak izan ote zuen ez ote zuen, gero drogaren mende bizi izan zen, Lehen Mundu Gerran mobili-

zatu zuten... Poesia oso gogorra dauka, errealitatetik erabat harantzago beti. Batzuek ikusi izan dute bisionario baten moduan, eta jarraitzaile andana bat izan zuen. Gazteleraz zerbait argitaratuta dago, baina euskaraz ez da inoiz argitaratu izan. Orain, Interneteko kontuak direla eta, agian pentsatu behar nuke modu elektronikoan argitaratzea edo...

Senez: Itzultzailearen alderdi sortzaileaz mintza gaitezen pixka bat. Orain arte itzuli izan dituzun genero, garai eta estiloetan euskarazko literatur erreferentzien falta izan duzu: ez da Hoffmann, edo Dostoievski, edo Chamisso, edo Mansfield, edo halakoen antzekorik euskal literaturaren historian. Geure ondarean halako oinarriak eskas izatea nola bizi du itzultzaileak? Zeuretik zerbait gehiago ematera behartzen al zaitu?

A.G.: Nire ustez literatura *unibertsala* da, munduan bakarra. Hizkuntza diferenteak izatea kontingentzia besterik ez da. Azken batean, adibide bat jartzearen, nik Hoffmann hizkuntza askotan irakurri izan dut, alemanez, ingelesez, gazteleraz... Azkenean, beti da Hoffmann, eta neure buruan euskaraz dago. Liburu bat eskuetan hartzen duzunean, *zeureratu* egiten duzu, irentsi nola bait esateko. Beraz, euskaraz ez ditugu halako erreferentziak izan, egia da, baina horrek ez digu gaitasunik kentzen beste hizkuntzak ulertzeko. Irakurtzen dugun moduan besterena geureganatu egiten dugu, eta euskaldunok horren herri txikia izanik, ia bide bakarra hori dugu: begiak irekitzea mundura, eta ikustea geure etxeaz bestaldera zer da goen.

Adibide bat jar dezaket, Adelbert von Chamisso-rena. Hoffmann-en jirako idazlea zen, erromantikoa, munduaz bazter bizi zirenak-eta asko maite zituen. Nik itzulitako

liburua, *Peter Schlemihl-en istorio miresgarria*, esate baterako, bere itzala galdu eta deabruarekin bat egindako gizonaren istorioa da. Giro horretan murgildurik, Chamisso-k 1828an *Des Basquen Etcheons Klage* izeneko lantuzko poematxo bat idatzi zuen Etxahun Barkoxekoaren omenez. Handik edo hementik, haren belarrietara iritsiko zen Etxahunen bizitzaren berri, eta gizarteko prosakitoenganako maitasunak eraginda idatziko zuen poema. Bi mundu, bi kultura, baina irudi literario berdina han eta hemen, egiazkoak nahiz fikziozkoak.

Erreferentzia konkretu batzuk baino gehiago axola zait, egia esateko, gure literatur tradizio orokorraren eskasia, horren eraginez hizkuntza erabat finkatu gabe daukagulako oraindik. Balego bide luzeagoa eginda, hizkuntza askoz arinago, askoz zaluago erabili ahal izango genuen, bai ahoz, eta zer esanik ez idatziz. Hori dugu oztopoa. Guri benetan ezpala tartean sartzen digutenak, egia esateko, gaztelera eta frantsesa dira; horrek jar dezake dena hankaz gora, bai hiztegi aldetik, bai egitura aldetik... Horrekin ibili beharra dago erne!

Egia esan, itzultzaileok ere erreferentzia literarioak sortzen ditugu, eta hori derrigorrezkoa da ia halako herri eta literatura txiki batean. Urte gutxitan *corpus* handi bat sortu da, literatura eta pentsamendu alorreko klasiakoak euskaratuta. Gure lanak lagunduko zuen, espero dut behintzat, hizkera literarioa gehiago finkatzen, erro sakonagoak lantzen. Bestalde, nik gazteen artean euskaraz irakurtzeko gero eta joera handiagoa ikusten dut; euskarazko ereduaren hezitako ikasleek, oro har, errazago irakurtzen dute euskaraz, eta hortik baliabide asko sortu da euskaraz. Urrats handi eta onak ematen ari garela

iruditzen zait, zalantzarik gabe, gero eta gehiago egiten da euskaraz, baina beldur naiz ez ote den hizkuntzaren kalitatearen kaltetan. Liburuak asko argitaratzen dira, baina horiek nora doaz? Ni neroni kezka horrekin gelditu izan naiz beti nire itzulpenak argitaratuak ikusi izan ditudanean: izango al da irakurlerik beste aldean, ala itsasoan norabiderik gabeko txalupa bailiran galduko dira betiko?

Gero, gainetik, kritika dago hutsaren hurrengo. Liburua kaleratzen duzu, eta hortxe gelditzen zara zalantzan, gustatu ote da?, ondo egin ote dut? Nik pozik hartuko nuke, egia esateko, nire itzulpengintzaren kritika zorrotz bat, jakinik horretan jarraitu nahi dudala, ez dela behin egindako labealdia, itzulpenak egiten segituko dudala. Ez legoke gaizki norbaitek inoiz esatea «halakoa gaizki egin duk». Askotan pentsatu izan dut gure literaturaren eta itzulpengintzaren mundu txikian halako talde gorrotagarri bat behar dugula, legeaz bestalde bizi den epaile multzoa, jendeari halakoa edo bestelakoa gaizki egin duela aurpegiratzen diona, sasi guztien gainetik bizi dena, eta eskubide guztiak modu lotsagabea hartuko dituen... Behintzat haiengatik kristorenak eta gehiago esateko aitzakia izango genuke, hitz egingo genuke literaturaz eta itzulpenaz.

Senez: Literaturaz gain, pentsamenduaren alorreko liburu bat ere argitaratua duzu, Herder-en Hizkuntzaren jatorriari buruzko tratatua, hain zuzen. Nolaz ote zitzaizun literaturatik urrundu eta bide horretara jotzea?

A.G.: Ez zen nire kabuz erabakitakoa izan, *Klasikoen Bilduma*-koek eskatu zidaten ea egingo nuen. Aurrez Herder-en gauza batzuk irakurriak nituen, eta liburu horre-

tan bereziki oso jakingarriak gertatu zitzaizkidan kultura desberdinez egiten dituen erreferentziak. Hizkuntzaren sorreraz ari denez, hizkuntza bakoitzak nolako mundu ikuskeraren duen aztertzen saiatzen da, eta hori euskaldunontzat garrantzizko gauza izan zitekeela iruditu zitzaidan. Gero, liburuaren hi-

tzaurrea egindako Helmut Gipper ezagutuen Oñatira hitzaldi batera etorri zenean. Liburua laburra da, eta ez du zailtasun berezirik, edo ez zitzaidan iruditu behintzat; Hoffmann-ena egin ondoren, hura gainditu baldin banuen, ez nintzen hortik aurrera erraz beldurtuko.

ANTTON GARIKANOREN ITZULPEN ARGITARATUAK:

Ernst Theodor Amadeus Hoffmann. *Ipuin fantastikoak*. Bilbo, Ibaizabal, 1992

Fiodor Dostoievski. *Jokalaria*. Bilbo, Ibaizabal, 1993

Virginia Woolf. *Farorantz*. Bilbo, Ibaizabal, 1993

Franz Kafka. *Prozesua*. Donostia-Baiona, Elkar, 1993

Johann Gottfried Herder. *Hizkuntzaren jatorriari buruzko tratatua*. Bilbo, Klasikoak SA, 1995

Adelbert von Chamisso. *Peter Schlemihl-en istorio miresgarria*. Bilbo, Ibaizabal, 1995

Katherine Mansfield. *Lorategiko festa eta beste kontakizun batzuk*. Bilbo, Ibaizabal, 1998

Laster argitaratzekoa:

Alfred Döblin. *Berlin Alexanderplatz*. Bilbo, Ibaizabal, 2000